



**Idiazabalgo**  
Udala

**EZ OHIKO UDALBATZARRA**

**2024ko apirilaren 16a**

**LEKUA:** Batzar gela

**LEHENDAKARIA:** Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

**EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIA:**

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

**IDAZKARIA:** Garazi Arraibi Larrea

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**ORDUA:** Hasiera: 18:00etan

## Lehena.- Osoko Bilkuraren urgentzia onartzea, hala badagokio.

Alkateak bileraren arrazoia azaltzen du:

DUS5000tik Zepai, Bikuña eta Galo Zudairen argiteria publikoa aldatzeko diru laguntza jaso zuen Udalak. Dirulaguntza hori lortzeko aurreproiektua aurkeztu zen, Naseik egindakoa.

Behin diru laguntza jasoko zenaren ebazpena jasota, Udalak proiektua eta obra zuzendaritza esleitu zituen eta Meik Ingeniaritzak pasaden ostiralean aurkeztu zuen proiektua, aurreproiektuan aurreikusitako kantitatea baino gehiago zelarik; zehatzago, aurreproiektuan 330.677,35 euro eta proiektuan 504.713,06 euro.

DUS5000ko laguntza jasotzeko, beharrezkoa da maiatzak 9rako obraren pleguak argitaratuta egotea eta lizitazioa ateratzeko derrigorra da partidaren proiektuan kalkulaturako dirua egotea. Kontuan izanda Kreditu Aldaketa egitea beharrezkoa dela, eta Plenotik pasatu behar dela ondoren 15 egunetan jende aurrean egoteko, Osoko Bilkura urgentziaz deitzeko egoera da.

Izalberrikoek adierazten dute presaka egin dela dena eta diru kantitate altua dela denbora gutxian aztertu ahal izateko. Alkateak erantzuten die arrazoia dutela eta ulertzen duela egoera, baina Kreditu Aldaketa egin ahal izateko egon den aukera bakarra dela.

Izalberrikoek diote ez dutela oztoporik jarriko proiektua aurrera eramateko, baina ez zaiela gustatu horrela egitea.

Ahobatez onartzen da egoeraren urgentzia.

## Bigarrena.- 2024-KALD-00002 Kreditu aldaketa onartzea, hala badagokio.

### KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipaturako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak

1 623.02.165.00 2024	Energia eraginkortasuna	270.000,00	234.713,06	504.713,06
<b>GUZTIRA</b>		270.000,00	234.713,06	504.713,06

<b>Kod.</b>	<b>Partida</b>	<b>Azalpena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
a	2 870.01.000 2024	Diruzaintza gerakina	234.713,06
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>234.713,06</b>

Ahobatez onartzen da Kreditu Aldaketaren proposamena.

Eta beste ezer esatekorik ez dagoela, bilera 18:50etan bukatzen da.

Alkatea

Idazkari-Kontuhartzailea